

GREZIAN IRLA MORDOA DIRA, BAINA IRLA HORIETAN GUZTIETAN, DANTZA EZBERDINAK EGONAGATIK ERE, BAT OSO OSO FAMATUA DA. ANTZINAK HASAPIKOZ DANTZAN OINARRITUTAKO SIRTAKI IZENEOA. ELKARRI HELDUTA EDO HORRELA (ESKUAK GORA, ETA KRISKITIN EGITEKO ANTZEKO POSTURA) DANTZATU DAITEKEENA. ETA GUK, ELKARREKIN DANTZATZEN, IKASIKO DUGUNA. ATZERA – AURRERA – ATZERA – AURRERA, GURE BARKUAN ZORABIATUKO GERA. GREZIARA IRITSI ETA BERTAN LURRA HARTUTAKOAN DANTZATZEA IZANGO DUGU ONENA. NAHI AL DUZUE NIREKIN ERA DANTZATU? DANTZA DEZAGUN BA.

GREZIAN, HASAPIKOZ IZENEO DANTZA OMEN DA TRADIZIONALETAKO BAT, BAINA PELIKULA BATEN BITARTEZ, ORAIN URTE BATZUK SIRTAKI IZENEOA EGIN ZEN FAMATU. ETA HORREN MOLDAKETA BAT DA GUK IKASIKO DUGUNA, PAUSU EZBERDINAK DAUDE, ETA HORIEK PIXKANAKA IKUSIKO DITUGU. GARRANTZITSUA ESKUAK HORRELA (ESKUAK GORA, ETA KRISKITIN EGITEKO ANTZEKO POSTURA) EDO ONDOKOAREKIN HORRELA (ESKUAK ETA BESOK ZABALIK BI ALDEETARA) JARTZEA IZANGO DA, BAINO HORI GERORAKO UTZIKO DUGU.

IKUS DEZAGUN HANKEKIN ETA OINEKIN ZER GERTATZEN DEN. ALDE BATERA JARRI, ETA ONDORENGOA EGINGO DUGU, ORPOA-PUNTA ETA OSTIKOTXO BAT. ETA BESTE ALDEAN GAUZA BERA: ORPOA – PUNTA ETA OSTIKOTXO BAT. ORPOA - PUNTA OSTIKOA, ORPOA - PUNTA OSTIKOA, ORPOA - PUNTA OSTIKOA, ORPOA - PUNTA OSTIKOA. ANTZEKO ZERBAIT EGINGO DUGU, ALDE BATERA ETA OSTIKOA, BESTE ALDERA ETA OSTIKOTXO HORI. ALDE BATERA OSTIKOTXO, BESTE ALDERA OSTIKOTXOA. HORI IZANGO DA ABESTIAREN EDO DANTZA HONEN HASIERAN ERABILIKO DUGUN PAUSU MOTA. ONDOREN, GAIA PIXKA BAT ZAILTZEN HASIKO BAITA.

DANTZA MOTA HONETAN, PAUSU HAU DA BEREIZGARRI. ESKUBIKO HANKAREKIN, ATZETIK PASA, ETA ITXOIN EGINGO DUGU. BESTE ALDERUNTZ GAUZA BERA EGIN ETA ITXOIN EGINGO DUGU. 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4. ETA PAUSU HAU ONGI ATERATZEN BAZAIGU, ORAINDIK ETA PIXKAT GEHIAGO ZAILDU DEZAKEGU. ATZETIK ETA AURRETIK PASATZEN. ATZETIK ETA AURRETIK PASATZEN. ATZETIK ETA AURRETIK PASATZEN. ATZETIK ETA AURRETIK PASATZEN. DANTZAREN BUKAERAN, BOROBIL HANDI BAT OSATUKO DUGU, ETA ELKARRI HELDUTA IBILIKO GARA. ETA AGUR TXIKIAK EGINGO DITUGU, 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4. ZUEN BURUA PREST IKUSTEN AHAL DUZUE DANTZA HONI EKITEKO? SIRTAKI DANTZA HONI EKITEKO? HALA BADA, PRESTATU ZUEN HANKAK ETA OINAK ETA DANTZATU DEZAGUN ELKARREKIN.

ORAIN ZUEN TXANDA DA!

ALDE BATERA, AGURRA. BESTE ALDERA, AGURRA. ATZERA. ETA AGURTU. PRESTATU ZUEN BESOK (ESKUAK GORA, ETA KRISKITIN EGITEKO ANTZEKO POSTURA). ETA LEHENGO PAUSUA. (DNATZAN HASTEN DA). PAUSO LUZEAREKIN. HURRENGOAREKIN PROBATUKO DUGU. ATZETIK, 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4. AUSARTZEN BALDIN BAZARETE, AURRTEIK ETA ATZETIK. ETA AZKARRAGO. AURRETIK ETA ATZETIK. HORI DA. ETA GOGORATU BUKATZEKO, HELDU ETA (JENDEAREKIN BOROBILEAN BALDIN BALEGO BEZALA BIRAK EMATEN HASTEN DA). ETA ONDOREN AGUR TXIKIAK EGINGO DITUGU. ADOS? 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4 – 1,2,3,4.